

musika ♦ BUDIÑO

Gaita jole lotsatiaren ausardia

Artista: Xose Manuel Budiño. **Lekua:** Bilboko Kafe Antzokia. **Eguna:** Azaroaren 17a. **Jende kopurua:** 100 lagun. **Iraupena:** Ordubete eta 20 minutu. **Sarrera:** 1.300 pezeta.

JENDE GUTXI —ehun lagun ozta-ozta— benetako musikari interesgarri hau entzuteko. Horixe izan zen gaueko kontrako faktore bakarra; gainontzekoak guztiz aldekoak ziren: musikarien kalitatea, lortutako soinu hobe ezina, eskainitako zerrenda, Budiñoren hobekuntza ikuskizun mailan, inprobisazioen neurri orekatua, jendearen erantzuna, piezen garai-kidetasuna, artistaren euskarazko esaldi luzeak... Kontzertu ona, benetan, Budiñok eskaini ziguna.

Arredor disko berria aurkeztu nahi zuen Moañaiko gaita joleak, eta horrela egin zuen. Baina aurreko *Paralaia* laneko lelo politenak ez zituen ahaztu. Esan dezagun, gainera, orango taldearekin, pieza zaharrak erabat hobetu direla: konponketak aldatzeaz gain, musikariek aire berriak erantsi dizkiete sustraiekin abiatzen diren soinu hauei.

Horra hor *O pateado* —erritmo atal esperimental eta guzti—, *Aire do cruceiro*, *Rapa bestas*, *Paralaia*, *Lóstregos* —bisetako pieza indartsuena— edo *A fonte de pedra*, esaterako. Baina aldaketa horiek Budiñoren ardura dira: Guillermo Fernández —Berrogüettoko gitarra jolea—, Jose Nine saxo soprañoa eta Cesar Morais baxu jolea —bost sokekin, noski— aukeratuz gero oso erraza zaio Budiñori bere konposaketak jazz ukituz betetzea, folk zaporea galdu gabe. Guztiz egokia izan zen soinu teknikariaren lana: bateria —Alejandro Deltell musikariaren eskuetan— bere neu-



Xose Manuel Budiño galiziar musikaria, Bilbon.

rrian entzun zen, erritmoa zehatz-mehatz markatu zuen, beste instrumentuen gainetik inposatu gabe. Eta garrantzitsua, halaber, Roberto Grandel akordeoi jolearen lana —Susana Seivane gaita jolearen lagun mina—.

Ehun pertsona aurrean ikusi ondoren, baten batek konpromisozko kontzertua egingo zukeen. Baina Budiñok ez zuen amore eman. Lehenbiziko piezan, *A modo ize-nekoan*, *uilleann pipe*-a hartu zuenetik (Irlandako ukondogaita) argi zegoen musikaria lan egitera etorria zela. Galiziako gaita batez ere, eta *low whistle*-a ere hartu zuen (Irlandako flauta grabea), bere kalitatearen lekukotasuna erakustearren.

Budiñoren musika ez da oso dantzagarria edo erraz txalotzen diren horietakoa, baina entzuleen erantzun beroa jaso zuen, bai pieza lasaieran bai bizietan.

Azken piezan, Budiño bakar-bakarrik

Poliki-poliki lan berriko pieza gehienak entzun genituen: *Roncos de son* —Guillermoren *wah-wah* efektua hor zegoen, harro-harro—, *Pola man* —lasaia eta jazz giro-

koa—, *Fala da noite* —melodia ederra bezain zoragarria—, *Amalgama* —Kepa Junkera lagunari eskaini zion; gure trikitilaria atzeko barra ondoan zegoen—, *Pos3 para2* —Budiño eta Jose inprobisazioen borrokan hasi ziren—, *Fume de lume* —oso indartsua, jendearen laguntzaz—, *Arredor* —«gaiteiro, gaiteiro» oihukatu zioten batzuek— edo bisetako *Compostela* —iazko azken gauean Santiagoko katedraleko teilatuetan jo zutena— edo *Xa*.

Entzuleok, txalo eta oihuen bidez, beste bis bat lortu genuen. Eta horra hor, bakarrik, gure Budiño, beltzez jantzia, gaita beltza eskuetan, pieza tradizional batekin: *Danza de San Roque de Hio*. Pozik zegoen galiziarra, eta hori nolabait erakusteko guregana etorri zen, eskailertan behera, *Arredor* akustikoa jotzeko. Aipa dezagun ere kontzertuan lehen lerroko ikusleak agertokitik bost metrora zeudela; muga handia musikarientzat. Baina, azkenik, Budiñok, mutil herabetia izan arren, distantzia hori desegin behar zela erabaki zuen. Amaiera bikaina kontzertu bikain honetarako.

Joseba Martin

musika ♦ MOSKUKO BAKARLARIAK

Chapeau

Orkestra: Moskuko Bakarlariek. **Biola jolea:** Youri Bashmet. **Obrak:** Telemann, Brahms, Txaiovski eta Schubert-enak. **Eguna:** Azaroaren 16a. **Lekua:** Donostiako Kursaal Auditorioa.

BESTERIK esan gabe, hitz honekin labur daiteke aurreko asteazkenean Kultura Musikaleko Elkartek antolatuta Moskuko Bakarlariek eman zuten kontzertua. Sokazko formazio gazte honek, orain dela zortzi urte Youri Bashmet biola jole famatuak sortu eta zuzenduak, goi mailako interpretazio bat zer den erakutsi zigun. Konpositore bakoitzaren esentzietara eraman gintuzten, beren musikaltasun fin eta landuaren eskutik.

Telemannen *Biola eta Orkestrarako kontzertua*-rekin hasi zen saioa, musika barrukoaren ikuspegi konbentzigarria emanez. Aurrerako *Largo*-tik harritu gintuzten taldearen izugarritzko konpaktazioak, eta Bashmeten soinu sakon eta fraseaketa naturalak.

Nabarmena izan zen baita ere *Allegro*-an lortutako doitasun erritmikoa, ezinezkoa musikari bakoitzaren gorenko mailakoa izango ez balitz. Baina agian *Andante*-a izan zen mugimendu azpimarragarriena biola jolearen aktuzioarengatik, instrumentutik atera daitezkeen baliabide guztiak menderatzeko gaitasuna erakutsi baitzuen.

Eta aurreneko obrarekin publikoa erakartzen hasi baziren, Brahmsen *Biola eta Orkestrarako Kinteto* (*Si bemol minorrean*) obrarekin —Bashmetek berak transkribitua eta Youri Boulou-

bevek moldatua— txunditu egin zituzten entzuleak. Gutxitan dastatzen den Brahms bat entzun genuen, pasionatua baina exagerazioz gabea, rubato justua erabiliz.

Biola jole ukrainarraren aktuazioa primerakoa izan zen uneoro, intentsoa. Eta orkestrari buruz beste horrenbeste esan dezakegu, edo gehiago. Ze dinamika ederra, ze ondo eraikitako klimaxak! Isurtze musikala zinez jariakorra agertu zitzaigun, izugarritzko teknika eta sentsibiltatea erakutsiz.

Eta kontzertuaren bigarren zatian, gehiago. Txaiovskiren *Biola eta Orkestrarako Andante cantabile*-a kutixia bat izan zen. Bashmeten soinua eta grazia luzitu egin ziren, orkestraren laguntza finarekin batera. Isilune zentzudunak, arkuaren atake egokiak... mundiala.

Amaitzeko, Schuberten *Neskatxa eta heriotza* (Mahlerrek orkestatua) perfektioaren erakustaldia izan zen. *Allegro*-a tentsio musikal bezala atera zen.

Andante-ko *cantabile*-ak, zoragarriak iritsi zitzaizkigun, dinamika oparo batez horniturik. Motibo guztiak, ezkatututa daudenak ere, zaindu-zainduak entzun genituen eta *pianissimi*-ak ezin hobeki kontrolatu zituzten musikari errusiarrek.

Scherzo kementsua eta azkeneko *Presto* doa, tximista bezalakoa, amaiera berezia izan ziren ahaztuko ez dugun saio batentzat.

Montserrat Auzmendi del Solar



ESKELAK



ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(943) 300 222